

«Prentsa-burua kazetari eta kazetaritzarako oztopo handia da»

Jolas polita da ahotsari aurpegia jartzea. Jolas arriskutsua mezularia identifikatzea. Eskerrak irratia telebistaz entzuten den garaiotan arrisku politikak geratzen diren.

SUSTRAI COLINA

Argazkiak: Dani Blanco

Nork erabakitzen du zer den albiste eta zer ez?

Mezularian, editoreak eta biok. Arratsaldeko hiruak aldera biltzen gara guretzat garrantzitsua zer den eta non ez dugun huts egin behar zehaztu eta adosteko. Hori interes informatiboren arabera egiten dugula esatea eta ezer ez esatea berdintsu gerta daiteke. Horregatik, etengabe gabe gabe jendearen interesekoa izango denaren atzetik, eta horretaz gain, badira irratiko publiko batek ezinbestean eman beharreko albisteak.

Batzuentzat albiste dena besteentzat ez da, ordea.

Bai, baina medio guztiek elkarren jarraipen handia egiten dugunez, eta edizio digitalek horretarako aukerak biderkatzen dituztenez, ohartzen zara oso antzera gabe gabe denak, irizpide propiorik gabe. Ez da erraza besteekiko desmarkatzea, baina batzuetan erlatibizatzeak ahalegina egin behar dugu. Urtel kasua, esaterako. Izan daiteke iruzur operazio bat, baina agian horren atzean gu hainbeste ziprztindu behar ez gintuzkeen PP eta PSOEn arteko borroka baizik ez dago. Erlatibizatzeak zer dakarren? Urtel kasua gure entzuleentzat albiste izan daitekeela, baina ez baitezpada lehen mailako albiste. Ariketa hori egin ezean beste medioen albiste zerrenda zeure egiten duzu eta inertzia horretan galtzen zara.

Internetek asko aldatu du kazetaritza?

Internetek baino gehiago aldatu du prekaritateak. Geroz eta bitarteko gutxiago jartzen dituzte enpresek albiste behar bezala jarraitzeko. Niretzat kazetaritza beti izan da neuk ikusitako hura kontatzea, baina hori egiteko geroz eta aukera gutxiago daukagu, eta agentzietatik datorrena zurrupatu besterik ez dugu egiten. Niretzat sekulako arazoa da kazetariak

Nortasun agiria

1972ko irailaren 13an sortu zen Ibarran (Gipuzkoa). Euskal Herriko Unibertsitatean kazetaritzan lizentziatua, 2003tik hona Euskadi Irratiko *Mezularia* programako zuzendaria da. Bertan egindako lanarengatik, 2005ean Rikardo Arregi kazetaritza saria jaso zuen, eta 2006an irratiko saileko ARGIA saria.

albistearen gunera bidali ezina. Nire begiek ez dute sekula ezer zureek bezala ikusiko, eta besteen begiekin fidatu beste erremediorik ez daukazu, horrek dakarren guztiaarekin.

Denek begi pare berarekin begiratzten dugunetik ikusten al dugu detailerik?

Produktua distiratsua egiten duena da detailea. Esaterako, alde handia dago espainiar kateetako umore saio batetik besterako elementuetan? Normalean ez. Detaileak bereizten ditu programak, detaileak egiten ditu puntako, multzoko, edo eskas. Magazin informatiboetan gauza bera. Denak gabilta antzeko eduki, agenda, eta interlokuzioarekin. Zerk bereizten gaituen? Detaileak. Galdera berezi batek, hango musika efektuak, horko *korte* kurioesak... Albistea bere hutsean eman beharrean beti saiatzen naiz albistea egoki janzten.

"Kontuak emateko dagoenari kontuak eskatu behar zaizkiola uste dut, bereziki gure dirua kudeatzen dutenei"

Baina irratian tiroak dianara nola doaz notiziak, sakontzeko tarterik gabe.

Prentsa idatziarekiko *handicap* handi bat daukagu, gertaerak analizatzeko patxadarik eza.

Gure kronikek minutu bat iraun behar dute, eta derrigortuta gaude albistea bere lerro nagusietan kontatzera. Horregatik gabilta etengabe titularraren bila. Era berean horretan datza gure lanaren enkantua, ahal bezain hitz gutxitan albistea ahal bezain zehatz agertzean.

Hori politikarientzako neurri-neurriko eskema da.

Egia da politikariak gure eskemetara errenditu direla, baina okerragoa da, inertiaren inertziak, gu ere euren egin-moldeetara makurtu izana. Prentsaurrekoetara joan eta apenas egiten dugun galderarik. Mikrofonoa muturraren aurrean jartzen diegu egu-



• PERTSONAIA •
Maite Artola



neko kortea emango digutela jakinda, euren dagoeneko lau haizetara zabaldu nahi dutenaren 30 segundoko sintesia buruan daukatelako. Horrekin konformatzen gara, joko horretan alper-galtzen ari garela ohartu gabe. Kontu eske mugitzeko geroz eta joera txikiagoa dago.

Zu mugitzen zara.

Kontuak emateko dagoenari kontuak eskatu behar zaizkiola uste dut, bereziki gure dirua kudeatzen dutenei. Behin Bernardo Atxagari entzun nionarekin bat nator. Politikariei eskatzen zien gauza bakarra literalitatea zen, esandakoa betetzea. Agintzen dutena betetzen ez badute azalpenak zor dituzte. Denok daukagu eboluzionatu eta iritziz aldatzeko eskubidea, edo batzuetan agindutakoa ez dago betetzerik, baina horrek ez zaitu esplikazioak eman beharretik libratzen. Horregatik antean egindako promesak, eta ildo nagusitzat saltzen digutena, beti hartu behar da kontuan hurrengo elkarrizketa egiteko.

Estu hartutakoan zer erantzun dizute politikariek?

Askotan entzuten zaie politika politika dela edo euren maniobra joko politikoaren barruan dagoela. Esaterako, halakorekin ez luketela sekula paktatuko adierazten dizute,

Ziur gaude?

“Bozgorailu eta erakusleihoak gara. Baina aztertu behar genuke zergatik egiten diogun hainbesteko lekua politikari. Politikariek beti berdintsua esaten dute, eta ziur gaude hori jendeari interesatzen zaiola?”.

baina gero tratua itxi, eta joko politikoari egozten diote dena. Ni oso estua naiz horretan, eta nire kasa maiz pentsatzen dut, “baina nola da posible? Hori agindu zenuen! Ezin didazu esan hori joko politiko dela!”. Gauza bat da politikariak joko horretan sartuta egotea, baina zergatik sartu behar dugu herritarrok?

Zer joko da prentsa-buruena?

Puntu eta apartekoak dira, beste espezie bat. Egia esan, nik ez daukat harreman zuzenik eurekin, baina iruditzen zait kazetarion lana erraztu ordez bidea oztopoz betetzeko dardela. Ordezkatzen duten pertsona babestu nahi izaten dute, batzuetan euren ezkutu bihurtzeraino. Ez dizute pertsona estuegi hartzen uzten, elkarrizketa deserosoak saihestu egiten dituzte... Kazetari eta kazetaritzarako oztopo handia dira.

Zer da zuretzat elkarrizketa on bat?

Elkarrizketatuari protagonismoa ematen diona. Estilo anglosaxoiko elkarrizketak egiten genituen telebista-saio hartan askotan dudatzen nuen ongi ari ote ginen. Galdezka hasten naizenean elkarrizketatuak jendearentzat interesgarria den hori esatea dut helburu. Pertsona batzuk behartzen ez dituzutenean ez diezula zukurik atera iruditzen

zaizu, eta gehiegi behartuz gero, ez dagokizun protagonismoa hartzen duzu. Neurri kontua da, baina ez da erraza. Batzuetan pertsona bati elkarrizketa egin aurretik zer atera nahi diodan oso garbi edukitzen dut eta horren bila joaten naiz, baina patxada handiagoko solasaldietan “ea zer ateratzen den” pentsatuz hartzen dut hitza. Horregatik, buruan duzun eskema edozein unetan goitik behera aldatu edo egokitzeke gai izan behar duzu, bestela...

Egunean zehar goitik behera aldatzen dena titularren ordena da.

Denborak dena irensten du, eta notiziek oso iraupen gutxi dute uneotan. Ohitu naiz, eta ez dut arazo bezala bizi. Horrek esan nahi duena da askotan puntakotzat jotzen ditugun albisteak ez direla hain puntakoak. Albisteen sailean badaude 24 ordu irauten dutenak, baina beste batzuk arnas askoz laburragoak dira. Guri gertatu izan zaigu notizia bati garrantzia ematea arratsaldean sortu delako bakarrik, besterik gabe. Arratsaldeko programa garenez, guretzat berria berriagoa da arratsaldean sortzen bada.

Albisteez gain eztabaidak ere kudeatzen dituzu. Benetako debateak dira?

Errespetuzko giroan bakoitzak berea azaldu eta jendeari iritzi desberdinak entzunaraztea lortu dugu, baina batzuetan ez dira benetako debateak. Euskaraz bizi den jendea esparru abertzalean kokatzen da bereziki, eta kontrapuntua egiteko eta sentsibiltate batzuk ordezkatzeko moduko oso jende gutxi daukagu. Horrek zer dakarren? Bata eta bestea-rengandik gauza bertsuak entzutea beti, baina ez daukagu beste erremediorik. Egunekeo gaiari lotuta elkarrizketa bat egingo badugu gure euskara mailaren exijentzia

Etiketak

“Jende batek, motiboak izan ala ez, EitBrekiko aurreiritziak dauzka. Ni saiatzen naiz nire lana ahalik eta zintzoen egiten, eta nik niregatik baino ez dut erantzuten. Nire ekintzen arduradun baino ez naiz. EitBren politika orokorrak ezin du gure lana etiketatzeke aitzakia izan”.

“Kazetariak pentsatzen duena etxean uzteko ahalegina egin behar du. Irratira noanean ez zaio inori axola nik zer pentsatzen dudan”

asko jaitsi beharra daukagu. Gai horiek eta jende hori existituko ez balira bezala ezin dugu jokatu.

Jaurilaritza aldaketarekin medio publikoetan ezker-abertzaleari ahotsa kentzeko asmoa aipatzen da. Beste arazo bat debateetarako.

Ez litzaidake gustatuko era horretako zentsurarik aplikatzea. Baina ez dakit zer gertatuko den, eta ez nuke ezer aurreratu nahi. Jabetzen naiz EitBren aldaketa ozen aldarrikatu dutela eta aldaketa hori gauzatuko dela uste dut. Nola? Auskalo. Ez dakit batzuen ezker-abertzalea deslegitimizatzeke nahiak zer ondorio eta eragin izango duen gure eguneroko lanean.

Joan den abenduko EitBren aurkako atentatuak izan du eraginik zugar gatazkaren gaia tratatzerako orduan?

Nik berdin-berdin tratatzen dut. Kazetariak pentsatzen duena etxean uzteko ahalegina egin behar du. Irratira noanean ez zaio inori axola nik zer pentsatzen dudana. Nire lana ahalik eta ondoen egitera noa, eta horretarako, gaiekiko distantzia hartu beharra daukat. Hori kostatzen den? Benetako borondatea

dagoenean ez dut uste aparteko zailtasunik dagoenik. Erabateko objektibitatearik ez da existitzen eta ez da sekula existituko, baina gaiekiko distantzia hartzea bakoitzaren esku dago.

Afganistango eta bigarren intifadako berri-emaila berezia zarenean ere bai?

Han albistea ikusi nuen. Kontziente nintzen albistearen lekuko nintzela, eta huraxe kontaktzen saiatzen nintzen. Faltan sumatzen dut garai hura. Egun, besteek ikusten dutenari lekua egiten dien gidaria naiz, kudeatzailea. Nire begiekin gehiago ikusi nahi nuke, nire begiek ikusten dutena kontatu.





AZKEN HITZA

Fragmentazioa

"Oso kontziente gara gure entzuleek ez dutela saioa hasieratik bukaerara osorik entzuten. Zappinga egiteko aukera eta erraztasunak daude, eta jada ez dago irratirik egun osoan kate bera sintonizatzen duenik. Horrek programak fragmentatzea eskatzen du, sekuentzia txiki eta biziak egitea, harrapatzen duzuna harrapatzen duzula gaiaz jabetu ahal izateko".

Gizartea oro har anestesiatuta dago, eta egun batean historiak kontuak eskatuko dizkigula uste dut. Antenan aldiz euskararen inguruko kontuekin ez naiz sekula isiltzen. Euskararen garrantzia aldarrikatu eta prentsaurreko guztia erdaraz ematen dutenekin ezin dut isildu, eta euren kontraesana behin eta berriz salatuko dut.

Egunean egunekoak salatzea ongi dago, baina begiratu harago, eta esadazu zerbait hemendik urte batzuetako Maite Artolaz.

Memento pertsonalak asko baldintzatzen dit etorkizunera begira jartzea. Haurdun nago, eta urte askotan puntako lehentasun bat lana izan den arren, azkenaldian eskemak aldatuta nago. Ez dakit zenbateraino aldatuko zaizkidan gauzak. Gainera ez dut sekula geroari so jartzeko ariketarik egin. Bruselara kasualitatez joan eta lau urte egon nintzen bertan, ez nuen sekula pentsatuko Afganistanen izango nintzenik eta joateko aukera izan nuen... Ikasle garaian Euskadi Irratian lan egin nahi nuela baino ez nekien, eta hortik aurrera aukerak etorri ahala baliatzen saiatu naiz. Hemendik aurrera aukerak izan eta aprobeztatuko ditudan? Ezta arrastorik ere. ■

Nola pizten zaio euskaldun arrunt bati interesa mundu mailako albiste batekin?

Gaia pertsonalizatuz. Afganistango gerrari buruz zenbat eraso izan diren, edo zenbat taliban hil diren kontatzea baino askoz eraginkorragoa da istorio pertsonalak edo pasadizo familiarrak kontatzea. Horrek jendearengana gerturatzen zaitu, eta era berean, hango errealitatearen isla kontatzen ari zara. Berez ez da lan zaila, baina albiste agentzien gupiletik ateratzea eskatzen du.

Isiltzen zaren sentsazioa duzu?

Pertsonalki, eguneroko bizitzan, bai. Irakeko edo Palestinako gerraz nork esaten du ezer?

Plusa

"Askotan notizia ez da zer esan den bakarrik, non esan den baizik. Guk garrantzi handia ematen diegu gurean esandakoei. Gurean esan izanak plus bat dauka guretzat".



Dive Tarpoon urpekaritza



Kirol portua, A7 lokala
 48992 GETXO (Bizkaia)
 Tel / Faxe: 94 4912577
divetarpooon@euskalnet.net
www.divetarpooon.com